

HERRITARREN ELKARBIZITZA ETA BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBIKETA ARAUTZEKO UDAL-ORDENANTZA.

Ordenantzaren helburu nagusiak izan behar du espazio publikoa elkarbizitzako eta gizalegezko toki bat izan dadila segurtatzea, eta espazio horretan pertsona guztiek askatasunez egin ahal izan ditzatela beren zirkulazio libreko, aisiako, elkartzeko eta jostaketako jarduerak, osoki errespetatuz lagun hurkoen duintasuna eta eskubideak, bai eta Lasarte-Orian aurkitzen diren bizimolde eta adierazpen mota guztiak ere. Ordenantzak tresna eraginkorra izan behar du, elkarbizitzari eragin diezaioketen egoera eta gorabehera berriei aurre egiteko. Egoera eta gorabehera berriei erantzun demokratikoa eta orekatua emateko asmoa du, horretarako oinarritzat hartuz, batetik, espazio publikoetan guztiek libreki portatzeko eta beren askatasunean errespetatuak izateko duten eskubidea aitortzea; baina baita ere, bestetik, guztiok onartu behar ditugula bizikidetzazko betebeharrak jakin batzuk, gainerakoiei aitortutako askatasuna, duintasuna eta eskubideak errespetatzekoak eta, halaber, espazio publikoa egoera egokian mantentzekoak. Eta hori guztia, gainera, jakitun izanik helburu horiek lortzeko ez dela nahikoa udaleko agintaritzak duen santzio-ahalmena baliaraztea, nahiz kasu batzuetan hori ere ezinbestekoa izan, baizik eta premiazkoa dela, era berean, beharrezkoak diren sustapeneko eta prestazio sozialeko jarduerak garatzea Udalak hirian, bai elkarbizitzaren eta gizalegearen balioak bultzatzeko, bai horren beharra izan dezaketen pertsonak modu egokian atenditzeko. Alde horretatik, bada, eta beste modu batera ezin izan litekeen bezala, Udalak berak izan behar du lehena Ordenantza betetzen. Udalak elkarbizitza eta

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA CONVIVENCIA CIUDADANA Y DEL USO Y LIMPIEZA DE LA VÍA PÚBLICA

El objetivo principal de la Ordenanza ha de ser el de preservar el espacio público como un lugar de convivencia y civismo, en el que todas las personas puedan desarrollar en libertad sus actividades de libre circulación, de ocio, de encuentro y de recreo, con pleno respeto a la dignidad y a los derechos de los demás y a la pluralidad de expresiones y de formas de vida diversas existentes en Lasarte-Oria. La Ordenanza tiene que ser una herramienta efectiva para hacer frente a las nuevas situaciones y circunstancias que pueden afectar a la convivencia. Intenta ser una respuesta democrática y equilibrada a nuevas situaciones y circunstancias, basándose, por un lado, en el reconocimiento del derecho de todos a comportarse libremente en los espacios públicos y a ser respetados en su libertad; pero, por otro lado, también, en la necesidad de que todos asumamos determinados deberes de convivencia y de respeto a la libertad, la dignidad y los derechos reconocidos a los demás, así como al mantenimiento del espacio público en condiciones adecuadas. Y, todo ello, además, siendo conscientes de que, para el logro de estos objetivos, no basta con el ejercicio, por parte de la autoridad municipal, de la potestad sancionadora, que en ocasiones también es necesario, sino que es preciso, también, que el Ayuntamiento lleve a cabo las correspondientes actividades de fomento y de prestación social necesarias para promover los valores de convivencia y el civismo en la ciudad y para atender convenientemente a las personas que lo puedan necesitar. En este sentido, pues, y como no podría ser de otro modo, el Ayuntamiento debe ser el primero en dar cumplimiento a la Ordenanza. el

gizalegea sustatzeko beharrezkoak diren politikak eramango ditu aurrera, udalerrian dauden pertsonen jokabideak eta jarrerak elkarbizitzaren gutxienezko estandarretara egokitzea lortzeko xedearekin, helburutzat izanik espazio publikoan gizalegea bermatzea eta, ondorioz, bizi-kalitatea hobetzea.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen funtsezko xedea komunitatean elkarrekin bizitzeko arauak ezartzea eta arau horiek bete daitezen zaintzea da, horrela bakean, askatasunean eta eskubideen nahiz betebeharren berdintasunean garatzea lortzeko.

Helburu hori lortzeko, Ordenantza honek elkartasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako herritarren talde bizitza arautzeko xedapenak ematen ditu.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Ordenantza hau Lasarte-Oriako udal-barruti osoan aplikatzekoa da, eta betetzera obligatuak geratuko dira bertako herritar zein bisitari guztiak.

3. artikulua.-

Ordenantza honen xedapenak ez betetzea gertatuz gero, Ordenantzaren edukia ez jakiteak ez dio mesederik egingo zertzelada horretan babesten den inori.

Ayuntamiento llevará a cabo las políticas de fomento de la convivencia y el civismo que sean necesarias con el fin de conseguir que las conductas y actitudes de las personas que están en el municipio se adecuen a los estándares mínimos de convivencia con el objetivo de garantizar el civismo y de mejorar en consecuencia la calidad de vida en el espacio público.

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto

El objeto primordial de esta Ordenanza es establecer las normas de convivencia en comunidad y velar por su cumplimiento de forma que se consiga su desarrollo en paz, en libertad y en igualdad de derechos y obligaciones.

Para conseguir esta finalidad esta Ordenanza articula las disposiciones que regularan la vida colectiva de los habitantes del municipio en la solidaridad y el respeto mutuo.

Artículo 2.- Ámbito de Aplicación

La presente ordenanza es objeto de aplicación en todo el término municipal de Lasarte-Oria y quedan obligados a su cumplimiento todos sus habitantes y visitantes.

Artículo 3.-

El desconocimiento del contenido de la presente Ordenanza no beneficiará a nadie que se ampare en esta circunstancia en caso de incumplimiento de sus disposiciones.

II. KAPITULUA. JOKABIDE ZIBIKOAZ

4. artikulua.- Herriko altzariak eta espazio publikoak babestea.

1.- Herritar guztien betebeharra da udalerrian dauden altzari publikoak behar bezala erabiltzea, eta normal kontserbatzea eta erabiltzea eragotziko dien andatzerik ez nozitzeko moduan errespetatu eta erabili beharko dituzte.

2.- Galarazita daude herriko altzariak eta espazio publikoak zikintzen eta hondatzen dituzten edo honda ditzaketen ekintzak eta, bereziki, honako egintza hauek:

- a) Bankuak beren erabilera naturalaren kontrako eran erabiltzea; hala, ezin dira ez oinpean erabili, ez kokatuak dauden lekuetatik erauzi, ez hautsi, ez zikindu, ez eta, oro har, haien erabilerari kalte egin dion edo kontserbazioa hondatzen dion ezer egin ere.
- b) Jolas-tresnak behar ez bezala eta kalte egiteko edo hondatzeko moduan erabiltzea, bai halaber haurrentzako jolas-tresnak helduek erabiltzea edo jolaserako adierazitakoa baino gehiagoko adina dutenek erabiltzea.
- c) Zakarrak, pipitak, fruitu lehorren edo antzekoen azalak, txikleak, bilgarriak edo paperak horretarako jarrita dauden paperontzietatik kanpo botatzea.
- d) Paperontziak iraultzea edo erauztea, bai halaber haien itxura eta osotasuna honda dezaketen bestelako ekintzak egitea.

C A P Í T U L O I I . D E L C O M P O R T A M I E N T O C Í V I C O

Artículo 4.- Protección del mobiliario público y de los espacios públicos.

1.- Es obligación de todo ciudadano hacer un buen uso del mobiliario público existente en el municipio, debiendo éste ser respetado y utilizado de tal forma que no sufra deterioro que impida su normal conservación y uso.

2.- No están permitidas las acciones que ensucien, produzcan daños o sean susceptibles de producirlos en el mobiliario y espacios públicos y, en concreto, los siguientes actos:

- a) El uso de bancos de forma contraria a su natural utilización, no debiendo ser pisoteados, ni arrancados del lugar en que estén colocados, ni rotos, ni manchados y, en general, todo aquello que perjudique su uso o deteriore su conservación.
- b) La utilización de los aparatos de juegos de forma indebida que los puedan dañar o destruir, así como la utilización de los aparatos de juegos infantiles por los adultos o por aquellos de edad superior a la indicada para el juego.
- c) Arrojar desperdicios, pipas, cáscaras de frutos secos o similares, chicles, envoltorios o papeles fuera de las papeleras a tal fin establecidas.
- d) Volcar o arrancar papeleras, así como otros actos que deterioren su aspecto e integridad.

- e) Paperontzietan, kontainerretan eta hondakin urbanoetarako diren bide publikoko espazioetan tresna edo objektu arriskutsuak edo kaltegarriak botatzea.

Ondorio horietarako, tresna edo objektu arriskutsuztat edo kaltegarritzat hartuko dira pertsoneri, haien osasunari, osotasun fisikoari edo ingurumenari kalte egin diezaieketen guztiak, hala nola animaliak eta animalia-hondarrak, substantzia estupefazianteak kontsumitzeko xiringak eta tresnak, zerbitzu sanitarioetan erabiltzen diren eta gaixotasunak kutsa edo zabal ditzaketen materialak, bai halaber era guztietako droga toxikoak, estupefazianteak eta produktu kimikoak, erradiaktiboak, piroteknikoak, leherkariak eta su-eragileak, pilak eta bateriak, tresna elektrikoak eta elektronikoak, pintura-ontziak edo aerosolak, bonbillak edo fluoreszenteak.

- f) Iturri publikoetako hodiak, kanilak eta gainerako elementuak manipulatzeko haien funtzionamendu normalari berez ez dagokion eran.
- g) Udalerrian dauden farolei, eskulturei eta gainerako apaingarriei kalte egiten dien edozein ekintza edo manipulazio, bai eta elementu horiek hondatzen dituen edozein ekintza ere.
- h) Sua eta jarduera piroteknikoak egitea udalaren eta alor horretan eskumena duten administrazioen nahitaezko baimenik gabe. San Joan bezperako suak eta antzekoak egiteko, udalaren baimena lortu beharko da, komunikaturiko egintzaren bitartez.

- e) Arrojar instrumentos u objetos peligrosos o nocivos en las papeleras, contenedores y espacios de la vía pública destinados a residuos urbanos.

A estos efectos, se considerarán instrumentos u objetos peligrosos o nocivos todos aquellos susceptibles de generar daños a las personas, su salud, integridad física o al medio ambiente, tales como animales y restos de animales, jeringuillas y útiles para el consumo de sustancias estupeficientes, materiales utilizados en la atención sanitaria que puedan ser susceptibles de contagiar o propagar enfermedades, así como todo tipo de drogas tóxicas, estupeficientes y productos químicos, radioactivos, pirotécnicos, explosivos e incendiarios, pilas y baterías, aparatos eléctricos y electrónicos, botes o aerosoles de pintura, bombillas o fluorescentes.

- f) Toda manipulación en cañerías, grifos y demás elementos de las fuentes públicas que no sean propias de su normal funcionamiento.
- g) Cualquier acción o manipulación que perjudique a las farolas, esculturas y demás elementos decorativos existentes en el municipio, así como cualquier acto que deteriore los mismos.
- h) Hacer fuego y actividades pirotécnicas sin la preceptiva autorización municipal y la de las administraciones competentes. Las hogueras de la víspera de San Juan y similares requerirán autorización municipal mediante acto comunicado.

- i) Bide publikoan dauden eta gizakien kontsumorako diren iturrietatik animaliei zuzenean edaten uztea.
- j) Iturri, ibai, erreka edo urmaeletan edo bide publikoan botatzea usain txarrak sorrarazten dituen, toxikoa den eta/edo oro har gogaikarri gertatzen den edozein substantzia.

- i) Que los animales beban directamente de las fuentes situadas en la vía pública y destinadas al consumo humano.
- j) Verter o arrojar en las fuentes, ríos, regatas y estanques o a la vía pública cualquier sustancia que genere malos olores, sean tóxicos y/o origine molestias en general.

5. artikulua.- Debeku espezifikoak.

Era berean, galarazita dago:

1.- Bide publikoan petardoak edo bengalak saltzea nahiz erabiltzea, eta edozein motatako objektuak jaurtikitzen dituzten tresna edo gailuak erabiltzea; esate baterako, arkuak, zerbatanak, tiragomak eta bolak botatzeko pistolak.

2.- Ordena publikoa asalda dezaketen borrokak, irainak, trufak, nahitako gogaitarazteak, etab.

3.- Oinezkoentzako plazetan eta espaloietan motozikletaz, ziklomotorrez, patin motordunetan edo beste edozein ibilgailu edo tramankulu motordunetan ibiltzea.

Debeku bera dute bizikletek, salbu eta hurrek gidatzen badituzte eta abaila txikian badoaz.

Oinezko bihurturiko bideetan ere zirkulatzen ahalko da bizikletaz, betiere oinezkoei eragozpenik eragin gabe.

Hori guztia alde batera utzirik Udalak bidezidor, bidegorri edo erabilera publikoko beste espazio jakin batzuei buruz eman ditzakeen xedapen espezifikoak.

Artículo 5.- Prohibiciones específicas

Del mismo modo, no esta permitido:

1.- La venta, así como la utilización, en la vía pública, de petardos o bengalas y cualquier instrumento o artilugio que proyecte cualquier tipo de objeto, tales como arcos, cerbatanas, tiragomas y pistolas lanzabolas.

2.- Las peleas, insultos, burlas, molestias intencionadas, etc., que pueden alterar el orden público.

3.- La circulación en motocicletas, ciclomotores, patines a motor y cualquier otro vehículo o artilugio a motor por las plazas peatonales y aceras.

La misma prohibición recae sobre las bicicletas, salvo que sean conducidas por niños/as a velocidad reducida.

También se podrá circular en bicicleta en los viales peatonizados sin provocar molestias a los viandantes.

Todo ello sin perjuicio de las disposiciones específicas que pueda adoptar el Ayuntamiento con respecto a determinados senderos, bidegorris u otros espacios de uso público.

4.- Jardinerak, loreontziak, etab. jartzea baldin eta fatxadetatik aurrera ateratzen badira edo eraikinaren beraren elementuek behar bezala eusten ez badiete eta, hortaz, bide publikoko oinezkoak eta haien ondasunak arriskuan jartzen badituzte.

5.- Patioetan, galerietan, merkataritzako lokaletan, garajeetan, balkoietan edo bestelako espazio ireki edo itxietan ezingo da animaliarik utzi baldin eta beren soinu, oihu edo kantuekin, edo beren eginkariak eginez, auzokoei gogait eragiten badiete.

6.- Ez da onartzen bide publikoan animalientzako janaria uztea.

6. artikulua.- Parke eta lorategi publikoak

1.- Herritarren betebeharra da udalerriko parke, urmael eta lorategi publikoak errespetatzea.

2.- Bide publikoan dauden parke, lorategi, landare-ontzi, parterre eta eremu landatuetako landare-espezie guztiak (zuhaitzak, zuhaixkak, belarkiak eta garaiko landareak) ongi kontserbatze eta mantentzea aldera, galarazita daude honako ekintza hauek:

- a) Landareak ostea (zuhaitzak, zuhaixkak, belarkiak eta garaiko landareak).
- b) Soropila eta eremu landatuak hondatzea edo bertan kanpatzea.
- c) Zuhaitz eta zuhaixken mozketak, inausketa, hausketa eta abarren bidez haiei kalteak eragitea edo haietara igotzea.

4.- La colocación de jardineras, macetas, etc. que sobresalgan de las fachadas o que no estén debidamente soportadas por los propios elementos del edificio, y que pongan en riesgo a los peatones de la vía pública y a sus bienes.

5.- No se dejarán en los patios, galerías, bajos comerciales, garajes, balcones u otros espacios abiertos o cerrados, animales que con sus sonidos, gritos o cantos, o realizando sus necesidades, causen molestias a los vecinos.

6.- Depositar alimentos para los animales en la vía pública.

Artículo 6.- Parques y jardines públicos

1.- Es obligación de los ciudadanos respetar los parques, estanques y jardines públicos del municipio.

2.- Para la buena conservación y mantenimiento de las diferentes especies vegetales (árboles, arbustos, herbáceas y planta de temporada) de parques, jardines, jardineras, parterres y plantaciones en la vía pública, no están permitidos los siguientes actos:

- a) La sustracción de plantas (árboles, arbustos, herbáceas y planta de temporada).
- b) Dañar el césped y plantaciones o acampar.
- c) Producir daños mediante talas, podas, roturas, etc. en árboles y arbustos o subir a los mismos.

- | | |
|---|--|
| <p>d) Haien azaletan grabatzea edo pintatzea, puntak iltzatzea, haiei eskailerak, lanabesak edo aldamioren euskarriak lotzea eta kartelak jartzea. Debekatua dago, halaber, konpainiako animaliei zuhaitzak hausten uztea.</p> | <p>d) Grabar o pintar sus cortezas, clavar puntas, atar a los mismos escaleras, herramientas, soportes de andamiaje y colocar carteles. También está prohibido permitir que los animales de compañía rompan árboles.</p> |
| <p>e) Aldi baterako bada ere, edozein zuhaitzen gainean eta lorategietan obrako materialak pilatzea edo haietan edozein motatako produktu toxikoak isurtzea. Berdeguneetan materialak pilatu (aldamioa muntatu...) behar izanez gero, baimena eskatu beharko da eta, ondoren, gunea lehen zegoen bezala utzi.</p> | <p>e) Acopiar, aun de forma transitoria, materiales de obra sobre cualquiera de los árboles y jardines o verter en ellos cualquier clase de productos tóxicos. En caso de tener que acopiar (montar un andamio...) materiales en las zonas verdes pedir permiso y después dejarlo como estaba antes.</p> |
| <p>f) Berdeguneetan, haiek hondatzeko edo duten estetika eta erabilera ona kaltetzeko moduko zaborrak, hondakinak, harriak, legarra edo beste edozein produktu botatzea.</p> | <p>f) Arrojar en las zonas verdes basuras, residuos, piedras, grava o cualquier otro producto que puedan dañarlas o atentar a su estética y buen uso.</p> |
| <p>g) Soropil eta lorategietan gorotzak uztea.</p> | <p>g) Dejar excrementos sobre el césped y jardines.</p> |
| <p>h) Parke eta lorategietan sua piztea edo sumetak egitea.</p> | <p>h) Encender fuegos u hogueras en los parques y jardines.</p> |
| <p>i) Matrikulatu gabeko bizikleta, motozikleta edo ziklomotorrekin zirkulatzea horretarako egokitu gabe dauden zonetatik kanpo.</p> | <p>i) Circular con bicicletas, motos o ciclomotores no matriculados fuera de las zonas habilitadas para tal efecto.</p> |
| <p>j) Parke eta lorategien barruan etxeke animaliak aske uztea horretarako egokitu gabe dauden guneeetan.</p> | <p>j) Dejar sueltos animales domésticos en espacios no habilitados para ello, dentro de los parques y jardines.</p> |

7. artikulua.- Edari alkoholduen kontsumoa.

Bide publikoan edari alkoholduak kontsumitzeari dagokionez, galarazita dago:

Artículo 7.- Consumo de bebidas alcohólicas.

En lo referente al consumo de bebidas alcohólicas en la vía pública, no está permitido:

- a) Bide publikoan edari alkoholdunak saltzea nahiz kontsumitzea, horretarako udal-lizentzia duten terrazetan edo kanpoko mahaitxoetan izan ezean.
- b) Ostalaritzako establezimenduetan edariak saltzea edo hornitzea kanpoan kontsumitzeko, ez bada horretarako udal-baimena duten terrazetan edo beste instalazio batzuetan kontsumitzeko.
- c) 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak hornitzea, saltzea eta kontsumitzea, salmentako lekuetan bezala kontsumoko lekuetan ere.

Adingabeei edari alkoholdunak hornitzearen erantzule izango dira, halaber, adindunak izanik eta establezimendu eta komertzioetako arduradunen kontroletik ihes egiteko xedez, edari alkoholdunak pertsonalki erosten dituzten eta gero adingabeei ematen dizkieten hirugarren pertsonak.

Segurtasuneko arrazoiengatik, jendetza handia biltzen duten ikuskizunetan eta izaera bereziko ekitaldietan, hala nola herriko jaietan, inauterietan eta Eguberrietako ospakizunetan, bai eta bestelako ekitaldi jendetsuetan ere, hala nola kontzertuetan eta antzekoetan, Udalaren baimena baldin badute eta edari alkoholdunak saltzeko aukera baimendua badute, berriz erabiltzeko edalontzi plastikozkoetan zerbitzatuko dituzte, eta ez da inolaz ere onartuko kristalezko, beirazko edo antzeko ontzirik.

III. KAPITULUA: BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA

8. artikulua.-

- a) La venta y consumo de bebidas alcohólicas en la vía pública, salvo en las terrazas o veladores con la correspondiente licencia municipal.
- b) La venta o suministro de bebidas en los establecimientos de hostelería para ser consumidos en el exterior, salvo en las terrazas u otras instalaciones con la debida autorización municipal.
- c) El suministro, venta y consumo de bebidas alcohólicas a menores de 18 años, tanto en lugares de expedición, como en los de consumo.

Serán también responsables del suministro de bebidas alcohólicas a menores, aquellas terceras personas que siendo mayores de edad y con el fin de eludir el control de los responsables de los establecimientos y comercios, adquieran personalmente las bebidas alcohólicas y posteriormente se lo faciliten a menores.

Por razones de seguridad, en aquellos espectáculos multitudinarios y eventos de carácter extraordinario, como fiestas patronales, carnavales y celebraciones navideñas, y otros eventos multitudinarios como conciertos y similares que cuenten con autorización municipal permitiendo la posibilidad de dispensar bebidas alcohólicas, éstas se servirán en vasos de plástico reutilizables, no permitiéndose en ningún caso envases de cristal, vidrio o similares.

CAPÍTULO III: LIMPIEZA DE LA VÍA PÚBLICA

Artículo 8.-

Herritar guztien betebeharra da garbi mantentzea udalerria oro har eta hango espazio publikoak bereziki.

9. artikulua.-

1.- Loreontziak edo landareak bide publikora urik isuri gabe ureztatuko dira, eta, isurtze hori saihestearren, soberako ura jasotzeko ontzia ipiniko da.

2.- Alfonbrak, erratzak edo zapiak astintzea, bide publikora edo jendea joan-etorrian ibiltzen den barruko patioetara ematen duten balkoi, begiratoki edo leihoetan, gaueko 21:00etatik goizeko 09:00ak arte soilik egiten ahalko da. Lan horiek kalterik eta eragozpenik ez sortzeko moduan egingo dira.

10. artikulua.-

Galarazita dago bide publikoa zikin dezakeen edozein operazio egitea, eta bereziki debekatua dago:

- a) Bide publikoan ibilgailuak urez garbitzea.
- b) Motorrari olioia aldatzea edo bide publikoa zikin dezakeen edozein likido mota manipulatzeko.
- c) Bide publikoan ibilgailuak konpontzea.
- d) Bide publikoan eginkariak egitea, gernua egitea eta txistua botatzea.
- e) Zaborrak edo hondakin urbanoak manipulatzeko eta, ondorioz, haiek barreiatzea, haien bilketa oztopatzea edo haien bilgarriak aldatzea.

Todo ciudadano está obligado a mantener limpio el municipio en general y sus espacios públicos en particular.

Artículo 9.-

1.- El riego de tiestos, macetas o plantas se hará de forma que no se vierta agua a la vía pública, colocando un receptor del agua sobrante que impida dicho vertido.

2.- La sacudida de alfombras, escobas, trapos en balcones, miradores o ventanas que den a la vía pública o patios interiores en los que haya tránsito de personas, sólo se podrán hacer entre las 21:00 y las 9:00 horas. Estas operaciones se realizarán de forma que no causen daño ni molestias.

Artículo 10.-

No está permitido realizar cualquier operación que pueda ensuciar la vía pública, y en particular queda prohibido:

- a) Lavar vehículos en la vía pública.
- b) Cambiar el aceite del motor o manipular cualquier clase de líquido que pueda ensuciar las calles.
- c) Reparar vehículos en la vía pública.
- d) Defecar, orinar y escupir en la vía pública.
- e) Manipular desechos o residuos urbanos, produciendo su dispersión, dificultando su recogida o alterando sus envases.

- | | |
|--|---|
| <p>f) Bide publikora txikleak, zigarrokinak, paperak, zaborrak, hondakinak eta antzekoak botatzea edo bertan uztea.</p> <p>g) Zakurren gorotzak bide publikoetan, haurrentzako parkeetan eta, oro har, pertsonak ibiltzeko edo egoteko den edozein lekutan uztea.</p> <p>h) Bide publikoan botilak, botilatxoak, edalontziak, edari-potoak, poltsak eta bilgarriak jaurtitzea edo uztea.</p> | <p>f) Arrojar a la vía pública o depositar en ella chicles, colillas, papeles, desperdicios, residuos y similares.</p> <p>g) Abandonar las deyecciones de perros en las vías públicas, parques infantiles, y en general en cualquier lugar destinado al tránsito o estancia de personas.</p> <p>h) Arrojar o dejar botellas, botellines, vasos, envases de bebidas, bolsas y envoltorios en la vía pública.</p> |
|--|---|

11. artikulua.-

Baldin eta industriako edo merkataritzako jarduera batek bere inguruetan zikinkeria sortzen badu, jardueraren titularrak garbi eduki beharko du bide publikoaren parte afektatua, nahitaezko lizentziei aplikatzekoa zaien erregimenetik datozkeen neurri zuzentzaileak eta gainerako betebeharrak alde batera utzirik.

Artículo 11.-

Cuando una actividad comercial o industrial genere suciedad en sus proximidades, el titular de la actividad deberá mantener limpia la parte de vía pública afectada, sin perjuicio de las medidas correctoras y demás obligaciones derivadas del régimen aplicable a las preceptivas licencias.

12. artikulua.-

Erakusleiho, establezimendu, salmenta-puntu eta antzekoen garbiketa kontu handiz egingo da, bide publikoa ez zikintzeko moduan; eta oinezkoei eragozpenik sortzen ez dieten orduetan egingo da.

Artículo 12.-

La limpieza de escaparates, establecimientos, puntos de venta y similares, se hará con precaución para no ensuciar la vía pública, y se realizará en un horario que no cause molestias a los viandantes.

13. artikulua.- Toldoak eta pertsianak.

Toldoak eta pertsianak Arau Subsidiarioen Ordenantzetan xedatutakoak arautzen ditu.

Artículo 13.- Toldos y persianas.-

Los toldos y persianas están regulados por lo dispuesto en las Ordenanzas de las NNSS.

Beheko solairuko lokalen eta etxebizitzetan toldoak eta pertsianak kontserbazioko eta garbitasuneko egoera onean mantendu beharko dira, eta berriak jarriko dira haien kanpoko itxurak edo andeatze-egoerak hala eskatzen duenean.

Deberán mantenerse en buen estado de conservación y limpieza los toldos y persianas de las viviendas y los locales de planta baja y se repondrán cuando lo requiera su aspecto externo o su estado de deterioro.

14. artikulua.- Errotuluak, plakak eta gainerako bereizgarriak.

Edozein errotulu, plaka edo bereizgarri bide publiko aldera jartzeko, udaleko lizentzia eduki beharko da, eta Arau Subsidiarioetako 4.30 artikuluan xedatutakoa beteko beharko da.

Horiek garbi eduki beharko dira, eta hondaturikoak berriekin ordeztu beharko dira.

15. artikulua.-

Jeneroa soltean edo edozein materia ontziratu gabe garraiatzen duten ibilgailuek bide publikora ezin isurtzeko moduan kargatuak eta ekipatuak joan behar dute.

16. artikulua.- Karga eta deskarga

1.- Edozein ibilgailu kargatzeko eta deskargatzeko lanen kasuan, espaloirik edo galtzadarik zikindu bada, berehala garbituko dira, lan horiek amaitu bezain laster.

2.- Garbiketa hori egiteko obligazioa dute ibilgailuen txoferrek, jabeek eta, subsidiarioki, karga edo deskarga destinatua doakien establezimendu edo finken titularrek.

Arau orokor gisa, baldin eta zuzenean edo subsidiarioki obligatua daudenek dagokien garbiketa egiten ez badute, udal-zerbitzuek egingo dute, baina kostuak haiei ordainaraziko zaizkie.

17. artikulua.- Erabilera berezi edo pribatiboak afektaturiko zonen garbiketa.

Artículo 14.- Rótulos, placas y demás distintivos.

Cualquier rótulo, placa y distintivo hacia la vía pública está sujeto a licencia municipal y a lo dispuesto en el artículo 4.30 de las Normas Subsidiarias.

Habrán de mantenerse limpios y deberán reponerse los deteriorados.

Artículo 15

Los vehículos que transporten género a granel, o cualquier materia sin envasar, han de ir cargados y equipados de modo que se impidan derrames sobre la vía pública.

Artículo 16.- Carga y descarga

1.- En caso de operaciones de carga y descarga de cualquier vehículo, la limpieza de las aceras y calzadas que hubieran sido ensuciadas se realizará inmediatamente después de concluir esas tareas.

2.- Están obligados a realizar dicha limpieza los conductores, los dueños de los vehículos y, subsidiariamente, los titulares de los establecimientos o fincas a los que vaya destinada la carga o descarga.

Como norma general, en el caso de que los obligados directamente o subsidiariamente no lo hicieran, los servicios municipales procederán a efectuar la limpieza que corresponda, repercutiendo en ellos los costes.

Artículo 17.- Limpieza de zonas afectadas por el uso especial o privativo.

1.- Erabilera arrunt bereziaren eta pribatiboaren ondorioz bide publikoa zikintzen bada, erabilera horien baimena edo kontzesioa duten pertsona fisiko edo juridikoen erantzukizuna izango da. Sortzen dituzten hondakinak botatzeko eta atxikitzeko ontzi homologatuak jartzeko eskatzen ahalko die Udalak, eta ontzi horiek garbitu ere egin beharko dituzte.

2.- Terraza eta mahaien garbiketari dagokionez, titularrek betiere ordubeteko epean egin beharko dute, establezimendua ixten denetik aurrera kontatuta. Nolanahi ere, egun osoan eduki beharko dute garbitasuneko eta higieneko kondizio egokietan, aldian behin erratza pasatuz eta garbiketak eginez.

3.- Terrazetako jarduera hondakinik ez sortzeko moduan egingo da.

18.-. artikulua.-

Finka eta eraikinen jabeek elementu horien apaindura publikoa kontserbatzeko betebeharra dute. Horretarako, fatxaden, sarreren eta, oro har, eraikinak dituen eta bide publikotik ikus daitezkeen parte guztien garbiketa eta mantentzioa egin beharko dute, bai halaber eraikinen osagarriena, hala nola antenak, tximiniak...

IV. KAPITULUA.- OBRAK GAUZATZEA

19.-. artikulua.-

1.- Egiten diren jarduera eta obra guztiek ezartzen diote haien titularrari, bide publikoa

1.- La suciedad de la vía pública ocasionada como consecuencia del uso común especial y del privativo, será responsabilidad de las personas físicas o jurídicas autorizadas o concesionarias de tales usos. El Ayuntamiento podrá exigirles la colocación de recipientes homologados para el depósito y retención de los residuos que generen, correspondiéndoles igualmente limpiar los recipientes.

2.- Respecto a la limpieza de terrazas y veladores deberá, en todo caso, ser realizada por sus titulares en el plazo de una hora contada a partir de la de cierre del establecimiento, con independencia del mantenimiento permanente a lo largo del día, en las debidas condiciones de limpieza e higiene, mediante tareas de barrido y limpieza periódicas.

3.- El ejercicio de la actividad de las terrazas se realizará de tal modo que se evite generar residuos.

Artículo 18.-

Los propietarios de fincas y edificios están obligados a conservar el ornato público de estos elementos, haciendo limpieza y mantenimiento de las fachadas, entradas y, en general, de todas las partes del inmueble visibles desde la vía pública, y también de los complementos de los inmuebles, como antenas, chimeneas...

CAPÍTULO IV.- EJECUCIÓN DE OBRAS

Artículo 19.-

1.- Todas las actividades y obras imponen a su titular, sin perjuicio de lo que se derive de

zikin ez dadin, neurriak hartzeko betebeharra, nahitaezko lizentzietatik datozen betebeharrak alde batera utzirik, bai halaber lan horrek afektaturiko parte behar adina aldiz garbitzeko eta sorturiko material-hondarrak erretiratzeko betebeharra.

2.- Udalak errekeritzen ahalko dio arduradunari dagozkion garbiketak egiteko.

3.- Eraikitze, zaharberritze, eraberritze edo eraisteko lanak direnean, obraren lizentziaren titularra izango da obra horiek afektaturiko bide publikoa garbitzearen erantzulea.

20. artikulua.- Obraren babesa

1.- Zikinkeria prebenitzeko, bide publikoa afektatzen duten edo afekta dezaketen lanak edo obrak egiten dituzten pertsonak bide publikoa babestu egin beharko dute, haren inguruan elementu egokiak jarrita, hartara obrako lur eta material soberakoak baimendutako eremutik edo obra mugatzen duen perimetrotik kanpora isur eta barreia ez daitezten.

2.- Galarazita dago obraren perimetroak mugatua ez daukan bide publikoan lurrak, hondarrak, legarrak eta gainerako materialak uztea, bai halaber eusteko eta induskatzeko elementu mekanikoak eta eraikuntzarako gainerako elementu lagungarriak pilatzea, non eta udalaren baimen espresa ez duen, eta espazio hori betiere garbi eduki beharko da.

3.- Lanegun bakoitza bukatzen denean, bide publikoan egindako lanen eremuak, zangak, kanalizazioak, etab. behar bezain garbi eta babestuak utziko dira, eta istripurik ez gertatzeko egokiro seinalizatuak, gauez balizatzeko elementuak barne.

las licencias preceptivas, la obligación de adoptar medidas para evitar que se ensucie la vía pública, así como la de limpiar con la frecuencia adecuada la parte afectada de la misma, y retirar los materiales residuales resultantes.

2.- El Ayuntamiento podrá requerir al responsable para que efectúe las acciones de limpieza correspondiente.

3.- Cuando se trate de edificios en construcción, rehabilitación, reforma o derribo, será el titular de la licencia de la obra el responsable de la limpieza de vía pública que se vea afectada por las obras.

Artículo 20.- Protección de la obra

1.- Para prevenir la suciedad, las personas que ejecuten trabajos u obras que afecten o puedan afectar a la vía pública deberán proceder a la protección de ésta mediante la colocación de elementos adecuados a su alrededor, de modo que se impida la expansión y vertido de tierras y materiales sobrantes de obra fuera de la zona autorizada o perímetro delimitador de la obra.

2.- No está permitido depositar en la vía pública no acotada por el perímetro de la obra, tierras, arenas, gravas y demás materiales, así como elementos mecánicos de contención, excavación y demás auxiliares de construcción, salvo autorización municipal expresa, manteniendo dicho espacio siempre limpio.

3.- Al término de cada jornada laboral, las zonas de trabajo, zanjas, canalizaciones, etc., realizadas en la vía pública deberán quedar suficientemente limpias, protegidas y adecuadamente señalizadas en previsión de accidentes, incluyendo elementos de balizamiento nocturno.

21. artikulua.- Garbiketako plataforma

1.- Obraren esparruan, plataforma bat eduki beharko da, ibilgailuen gurpilak eta galtzada, espaloiak edo erabilera publikoko beste elementu batzuk zikin ditzaketen gainerako elementuak bertan garbitu ahal izateko modukoa. Ibilgailuak obraren esparrutik kanpora atera baino lehen garbitu beharko dira.

2.- Prebentzio hori ez betetzeak berekin ekarriko du, dagokion santzioa jartzeaz gain, Udaltzaingoak obrako ibilgailu horiei bide publikora ateratzea debekatuko diela.

3.- Erantzule solidarioak izango dira obraren sustatzailea edo obrako lizentziaren titularra.

22. artikulua.- Masaderak

1.- Galarazita dago ibilgailu masaderadunean hormigoia garraiatzea, baldin eta deskargatzeko ahoa itxita ez badarama, hormigoi hori bide publikora isurtzea eragotziko duen dispositibo baten bitartez.

2.- Masaderak bide publikoan eta horretarako egokia ez den beste edozein lekutan garbitzea.

3.- Aurreko bi atal horiek betetzen ez badira, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzuleak, eta erantzule subsidiarioa, berriz, obraren sustatzailea edo zerbitzua ematen dioten jardueraren titularra. Isurtzen den hormigoia eta afektaturiko bide publikoa garbitzera obligatuak egongo dira, dagozkien santzioak alde batera utzirik.

23. artikulua.- Lurren eta obra-hondakinen garraioa

Artículo 21.- Plataforma de limpieza

1.- En el recinto de la obra deberá disponerse de una plataforma apta para limpiar las ruedas y demás elementos de los vehículos que puedan ensuciar la calzada, aceras u otros elementos de uso público. Los vehículos serán limpiados antes de acceder al exterior del recinto de la obra.

2.- El incumplimiento de esta prevención llevará aparejada, además de la oportuna sanción, la prohibición por parte de la Guardia Municipal de acceso a la vía pública de dichos vehículos de la obra.

3.- Serán responsables solidarios el promotor de la obra o el titular de la licencia de obra.

Artículo 22.- Hormigoneras

1.- No está permitido el transporte de hormigón con vehículo hormigonera sin llevar cerrada la boca de descarga mediante un dispositivo que impida el vertido de hormigón a la vía pública.

2.- Limpiar las hormigoneras en la vía pública y en cualquier otro lugar no adecuado para ello.

3.- Del incumplimiento de los dos apartados anteriores serán responsables el propietario del vehículo y su conductor y responsable subsidiario el promotor de la obra o titular de la actividad a la que den servicio, quedando obligados a la limpieza del hormigón que se vierta, y de la vía pública afectada, sin perjuicio de las sanciones que correspondan.

Artículo 23.- Transporte de tierras y escombros

1.- Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek beharreko baldintzak beteko dituzte, beren edukia bide publikora isur ez dezaten.

2.- Baldin eta istripuaren, iraultzearen edo beste edozein gorabeheraren ondorioz karga bide publikora erortzen edo isurtzen bada, eta horrek bideko segurtasunari begira arriskuak sor baditzake, kasuan kasuko gidariak ahalik eta azkarren eman beharko diote horren berri Udaltzaingoari, eta, horrekin batera, eroritakoa biltzen eta arrisku-eremutik kanpo eramaten hasiko dira, garbiketako zerbitzuek eman diezaieketen laguntzaren zain. Nolanahi ere, gorabehera horiei inputa dakizkiekeen gastuak ibilgailuen jabeen edo gidarien kontura joango dira.

3.- Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzen dituztenak behartuak daude, baldin eta bide publikoa zikintzen bada, afektaturiko bidetarte berehala garbitzera.

4.- Isurketen erantzuleak behartuak gelditzen dira baimenik gabeko lekuetara isuritako lurak eta obra-hondakinak aldiro erretiratzen, eta, horrez gain, dagozkien santzioak jartzen ahalko zaizkie.

Edozein kasutan ere, erantzule solidariotzat jotzen dira zuzeneko egilea, ibilgailuaren jabea eta isurketatik onuraren bat atera lezakeen pertsona oro.

V. KAPITULUA.- URBANIZAZIO ETA ORUBEEN GARBIKETAZ

24. artikulua.- Espazio pribatuen garbiketa

1.- Los vehículos en que se efectúe el transporte de tierras y escombros reunirán las debidas condiciones para evitar el vertido de su contenido sobre la vía pública.

2.- En caso de accidente, vuelco u otras circunstancias que originen el desprendimiento o derrame de la carga en la vía pública y pueda generar riesgos para la seguridad vial, los respectivos conductores deberán notificar el hecho con la máxima urgencia a la Guardia Municipal, al mismo tiempo que iniciará la tarea de recogida y depósito fuera de la zona de riesgo, a la espera de la ayuda que los servicios de limpieza puedan ofrecerle. En cualquier caso, el costo imputable de estas incidencias correrá a cargo de los propietarios o conductores de los vehículos.

3.- Los transportistas de tierras y escombros están obligados a proceder a la limpieza inmediata del tramo de vía afectada, en el supuesto de que la vía pública se ensuciase.

4.- Los responsables de los vertidos quedan obligados a retirar en todo momento las tierras y escombros vertidos en lugares no autorizados, sin perjuicio de las sanciones que correspondan.

En todo caso se consideran responsables solidarios el autor material, el propietario del vehículo y toda aquella persona que obtuviera algún beneficio del vertido.

CAPÍTULO V.- DE LA LIMPIEZA DE URBANIZACIONES Y SOLARES

Artículo 24.- Limpieza de espacios privados

1.- Jabeei dagokie urbanizazio pribatuetako espaloiak, igarobideak, galtzadak, plazak eta lorategiak garbitzeko lana.

2.- Jabeen betebeharra izango da etxadietako barruko patioak, orube partikularrak, merkataritzako galeriak eta antzekoak garbitzea.

3.- Elementu pribatu horien guztien garbitasunezko egoera kontrolatzea eta ikuskatzea Udalak egingo du, eta erantzuleei garbitzeko eskatuko die, zeregin horretarako udal-zerbitzuek ematen dituzten aginduen arabera.

25. artikulua.- Orubeak eta lursail pribatuak.

1.- Orube eta lurren jabeek zabor eta hondakinik gabe eduki beharko dituzte leku horiek, eta beharreko kondizioetan osasunari, higienerari, segurtasunari eta apaindura publikoari dagokienez. Era berean, arratoiez eta intsektuez gabetu beharko dituzte, horretarako baimena duen enpresa baten bidez.

2.- Hirigintzako edozein jarduketaren prozesuan diren eraikin hondatuek behar den bezala itxita edo hesituta egon beharko dute, haiekin zerikusirik ez duen edonori bertara libreki sartzea galarazteko.

3.- Kapitulu honetako punturen bat betetzen ez bada, Udalak, subsidiarioki eta indarrean dauden legezko mugekin, horretarako egokiak diren neurriak hartuko ditu, eta lur horretara sartzen ahalko da aurreko bi paragrafoetan adierazitako xedeekin. Sortzen diren kostuak, berriz, jabeei inputatuko zaizkie.

1.- La limpieza de aceras, pasajes, calzadas, plazas y jardines de las urbanizaciones privadas corresponde a sus propietarios.

2.- Será obligación de los propietarios la limpieza de patios interiores de manzana, solares particulares, galerías comerciales y similares.

